

ZAPATUETAKO TAILERRAK (SUKALDARITZA OSASUNGARRIA) 2019-01



Eibarko Udalak sukaldaritza tailerra antolatu du elikadura osasungarria sustatzeko herriko haurren artean.

Tramitatzailea: Kultura

Hartzaileak: lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrak

Ordutegia: bi talde egongo dira:
LH 3. eta 4. mailakoak: 16:30etik 18:00era,
18:00etik 19:30era.
(ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Nork emango du: Alazne Agirrezabalaga-k.

Non eta noiz: Portalea. Larunbat arratsaldeetan
Otsailak 2, 9, 16 eta 23

Ikastaroaren prezioa: 10€ (Eibarren erroldatuak)
30€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa
bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:
PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Ikastarora ekarri behar den materiala:

Amantala.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez
15 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Eskaera egiteko epea:
Urtarrilaren 21etik 28 arte (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus, eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.
Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus/kultura), **urtarrilaren 31an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urtarrilaren 31an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus/kultura), egongo da **urtarrilaren 31an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

Informazio gehiago: 943 708 435